

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure negozioak aurrera egin dezan, beste enprekin aliantzak edukitzea ezinbestekoa izango da, haien laguntza beharko dugulako. Bereziki, supermerkatuekin (adibidez Eroski S. Coop., Mercadona S.A., ...) aliantzak beharrezkoak izango dira, gure bezeroak izango baitira. Kanpo enprekin ere, makinak egiten trebeak direnekin, gure makina eraiki dezaten (OMECHA UAB, adibidez). Plastikoak batzen dituen beste enpresa batekin akordio batera ailegatu beharko ginateke, horrela kamioiak zaborra plastikoa birziklatzera eraman dezaten (Garbiker). Udalekin, Ecoembes-ekin, Foru Aldundiekin eta Euskal Jaurlaritzarekin ere akordioak izatea onuragarria izango litzateke.

Guk produktua supermerkatuen atarian eskainiko dugu. Supermerkatuaren txarteletan deskontuak metatuko dira denda horretan bertan erabiltzeko, orduan, elkarte hori ezinbestekoa da. Elkarte hori supermerkatuari dauzkan bezeroak mantentzeko eta berriak izateko balioko dio, eta onura horiek jasotzen dituen bitartean, gizarteari lagunduko dio.

Enpresa barruan elkarte nagusia guk osatuko dugu eta bakoitzak zeregin zehatza dauka:

- Izortz: Finantziaketaz eta inbertsio arloaz arduratuko da (Aurrekontuak, bankuekin negoziazioak, inbertsioak..).
- Paula: Giza balibideen arloaz eta merkaturatze arloaz arduratuko da (Sare sozialak, webgunearen egineraketa, komunikazioa bezero eta hornitzaileekin..)
- Nahia: Kudeatzailea izango da (Enpresa antolatu eta kudeatuko du). Produktuaren berrikuntzaz ere arduratuko da.

